Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

OT-001-2016

Gaia: Bilbo Metropolitarreko Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

Asunto: Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun Zenbakia: 30
Nork aurkeztu du:
**Berrikuntzarako eta Bideen Kudeaketarako Zuzendaritza Nagusia. Bizkaiko Foru Aldundia.**
Aurkezpen data: 2022/01/20

Sugerencia Nº: 30
Presentada por:
**Dirección General de Innovación y Gestión Viaria. Diputación Foral de Bizkaia.**
Fecha de presentación: 20/01/2022

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

Hainbat zehaztapen egin dira, lau atal handitan banatuta:

A) Aldez aurretiko gogoetak.

BMLPP eguneratu egin behar da indarreko araudiari dagokion guztian, 5/2021 Foru Arau berriari dagokionez, eta berariaz adierazi behar da erantsi den Bizkaiko Errepideen Katalogoa, zeinak errepide jakin batzuen nomenklatura eta kategoria aldatzea baitakar, bai eta I. kapitulua ere, "Jabetzaren mugaketak" gaiari buruzkoa.

Argi eta garbi adierazten da Saila bi lurraldeplan idazteko prozesuan dagoela: Bizkaiko Bizikleta Bideen 2023-2035 Lurralde Plan Sektoriala (BBBLPS) eta Bizkaiko Errepideen 2023-2035 Lurralde Plan Sektoriala (BELPS). Hala, BMLPPren eta plan sektorial horien artean erabateko sintoniarik ez duten alderdien iradokizunean islatu da.

B) Bilbo Metropolitarreko LPPren helburu estrategikoei dagokienez.

Proposatutako hiri- eta lurralde-ereduari dagokionez BMLPPen ezarritako printzipioak partekatzen dira. Hala ere, EAEko mugikortasun jasangarriari eta jasangarritasun energetikoari buruz ezarritakoa azpimarratu behar da, hau da, udalaren hirigintza-plangintzek betebeharra dutela bertan ezarritako lurzoruaren erabilera berriek mugikortasun-sisteman eragiten dituzten ondorioak kontuan hartzeko eta,

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

Se realizan una serie de puntualizaciones estructuradas en cuatro grandes apartados:

A) Consideraciones previas.

Se requiere la actualización del PTPBM en todo lo relativo a la normativa vigente, refiriéndolo a la nueva Norma Foral 5/2021, señalándose específicamente el Catálogo de Carreteras de Bizkaia que anexa, el cual conlleva el cambio en la nomenclatura y categoría de determinadas carreteras, y el Capítulo I, relativo a las "Limitaciones de la propiedad".

Se explicita el hecho de encontrarse el Departamento en el proceso de redacción de dos planes territoriales, el PTS de Vías Ciclistas de Bizkaia 2023-2035 (PTSVCB) y el PTS de Carreteras de Bizkaia 2023-2035 (PTSCB), dándose translado en la sugerencia de los aspectos en los que no existe plena sintonía entre el PTPBM y dichos planes sectoriales.

B) En relación a los objetivos estratégicos del PTP de Bilbao Metropolitano.

Se comparten los principios establecidos en el PTPBM respecto al modelo urbano y territorial propuesto. No obstante, se hace notar lo establecido a nivel de movilidad sostenible y sostenibilidad energética de la CAPV, respecto a la obligación de los planeamientos urbanísticos municipales de considerar las afecciones en el sistema de movilidad por nuevos usos del suelo establecidos en los mismos y, en su caso, proponer

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: IWHU-MPM3-FXFW-8Q2P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

hala badagokio, hautemandako arazoei konponbideak proposatzeko. Alde horretatik, komenigarritzat jotzen da BMLPPen araudian gidalerro batzuk sartzea, mugikortasun jasangarriaren azterlanak egiteko, eta jakinarazten da badagoela garraio-eredu bat, berariaz garatzen ari dena idazten ari den BELPSerako.

C) <u>LPPren hasierako onarpenerako dokumentuan jasotako bide-azpiegituren sareari dagokionez.</u>

Mugikortasunarekin, jasangarritasunarekin eta klima-aldaketarekin lotuta orain dela gutxi gertatu diren arau-aldaketen ondorioz, BELPSaren beste ikuspegi bat sortu da, idazketan, eta eredu "disruptibo" baten aldeko apustua egin da; eredu horretan, erabilgarri dauden azpiegiturak eta garraio-moduak modu eraginkorragoan erabiltzearen aldeko apustua egiten da, emisioak murrizteko eta datozen urteetan azpiegitura berrien beharrari eusteko.

Ikuspegi berri horren aurreko sektore-aurreikuspenak BMLPPn kontuan hartuta, beharrezkoa da, beraz, eduki horiek eguneratzea. Ildo horretan, jarduketei dagokienez izandako aldaketak aurkezten dira, honela banakatuta:

1. BMLPPn jasotako azpiegiturak, BELPSeren barruan sartuta ez daudenak; zortzi guztira.
2. BELPSen jasotako jarduketak, BMLPPn sartu beharrekoak; guztira, zazpi.
3. Trazaduraren inkongruentziaren bat duten jarduketak; bi kasu.
4. Zer jarduketatan den beharrezkoa haien norainokoa zehaztea; beste bi kasu.

Aldaketak jasotzen dituen plano bat erantsi da.

D) <u>Bizikleta-mugikortasunaren sareari dagokionez.</u>

Ia erabateko bat-etortzea dago BMLPPren arteria-sarearen eta BELPSaren xede den sarearen (PXS) artean, eta bi zehaztasun ematen dira bi sareen arteko erabateko sintonia lortzeko.

Aldiz, alde nabarmenak daude BMLPPren Ekonomia eta Finantza Azterlanean eta Jardun Programan egindako erantzukizunen

soluciones a los problemas detectados. En este sentido, se considera recomendable incorporar en la Normativa del PTPBM algunas directrices para la realización de los correspondientes estudios de movilidad sostenible, comunicándose la disponibilidad de un modelo de transporte desarrollado específicamente para el PTSCB en redacción.

C) <u>En relación con la red de infraestructuras viarias recogidas en el documento de aprobación inicial del PTP.</u>

El conjunto de cambios normativos acaecidos recientemente en relación con la movilidad, la sostenibilidad y el cambio climático, han propiciado un nuevo enfoque del PTSCB en redacción, apostando por un modelo "disruptivo" en el que se apuesta por un uso más eficiente de las infraestructuras y modos de transporte disponibles, tratando de reducir las emisiones y contener la necesidad de nuevas infraestructuras en los próximos años.

Habiéndose considerado en el PTPBM las previsiones sectoriales anteriores a este nuevo enfoque, resulta necesario, por tanto, actualizar estos contenidos. En este sentido, se aportan los cambios habidos respecto a las distintas actuaciones con el siguiente desglose:

1. Infraestructuras recogidas en el PTPBM que no están incluidas en el PTSCB; un total de ocho.
2. Actuaciones contenidas en el PTSCB que deben de ser incorporadas en el PTPBM; siete en total.
3. Las actuaciones que presentan alguna incongruencia de trazado; dos casos.
4. Las actuaciones en que resulta preciso sea matizado el alcance de las mismas; otros dos casos.

Se adjunta un plano indicando los distintos cambios.

D) <u>En relación con la red de movilidad ciclista.</u>

Existe una coincidencia casi total entre la red arterial del PTPBM y la red objeto (ROP) del PTSVCB, señalándose un par de puntualizaciones para conseguir la total sintonía entre ambas redes.
Existe, por el contrario, diferencias relevantes entre la asignación de responsabilidades realizadas en el Estudio Económico-Financiero y



Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: IWHU-MPM3-FXFW-8Q2P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus

esleipenaren eta BELPSen ezarritakoaren artean, eta alde horien zerrenda zehatza ematen da.

Azkenik, Arrigorriaga eta Ugao-Miraballes artean bide bat gaitu berri dela jakinarazi da, BMLPPen eguneratzeko

Programa de Actuación del PTPBM y la establecida en el PTSVCB, facilitándose una relación detallada de dichas diferencias.

Se da cuenta, finalmente, de la reciente habilitación de una vía entre Arrigorriaga y Ugao-Miraballes para su actualización en el PTPBM.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

Egindako ekarpenak eskertuz, txostenaren hainbat alderdiri buruz honako hau adierazi da:

Aldez aurretiko gogoetak.

BMLPPn eguneratu egingo da, Bizkaiko Errepideei buruzko 5/2021 Foru Arau berriaren edukien arabera.

Bilbo Metropolitarreko LPPren helburu estrategikoei dagokienez.

Udalerriek mugikortasun jasangarriari buruzko azterlanak egiteko jarraibideak BMLPPren araudian sartuko dira, alegazioaren egileak, arlo horretan eskumena duen administrazio-erakundea den aldetik, emandako jarraibideen arabera.

LPPren hasierako onarpenerako dokumentuan jasotako bide-azpiegituren sareari dagokionez.

BMLPPn, aurreikuspen sektorialak eguneratu egingo dira, BELPSek aldarrikatu zuen eredu "disruptibo"aren eta aztertutako txostenean bertan emandako xehetasunaren arabera.

Bizikleta-mugikortasunaren sareari dagokionez.

Egindako ekarpenarekin eta plana egiteko prozesuan gerta daitezkeen gainerako jarduketekin eguneratuko da BMLPPren sarea. Gainera, Ekonomia eta Finantza Azterlanean eta Jarduketa Programan atzemandako aldeak zuzenduko dira, BELPSn ezarritako erantzukizunen esleipenari dagokionez.

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

Agradeciendo las aportaciones realizadas, en relación a los distintos aspectos del informe se señala lo siguiente:

Consideraciones previas.

Se procederá a la actualización en el PTPBM de acuerdo a los contenidos de la nueva Norma Foral 5/2021, de Carreteras de Bizkaia.

En relación a los objetivos estratégicos del PTP de Bilbao Metropolitano.

Se incorporarán en la Normativa del PTPBM las directrices para la realización por los municipios de estudios de movilidad sostenible de acuerdo a las indicaciones que proporcione el alegante en su calidad de ente administrativo competente en la materia.

En relación con la red de infraestructuras viarias recogidas en el documento de aprobación inicial del PTP.

Se actualizarán en el PTPBM las previsiones sectoriales de acuerdo al modelo "disruptivo" propugnado desde el PTSCB y al detalle facilitado en el propio informe analizado.

En relación con la red de movilidad ciclista.

Se actualizará la red del PTPBM con la aportación realizada y aquellas otras actuaciones que pudieran tener lugar durante el proceso de elaboración del plan. Se corregirán además las diferencias detectadas en Estudio Económico-Financiero y Programa de Actuación respecto a la asignación de responsabilidades establecida en el PTSVCB.

**LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA**
**LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL**

Egiaztapen Kode Elektronikoa / Código de Verificación Electrónica: IWHU-MPM3-FXFW-8Q2P
Egiaztapen helbidea / Dirección de verificación: www.ebizkaia.eus